



## **JAKES AURNAGUE IZOCO**

**Baiona, 1934-III-22 - Uharte-Garazi, 1994-II-27**

Je suis né voici 58 ans, un 22 mars à Bayonne, cité Lahubiague près du carmel, des Chérubinots, à deux pas du stade. Le cantonnier Bidegaray « Otxoki », le laitier « Pecotche », Lassus le fleuriste, l'épicière Mme Irigoin, le cordonnier Larre, le boulanger Zamora et tant d'autres ont été les figures familières de mon enfance. Tous parlaient couramment deux ou trois langues. Mon père, qui était bascofphone, possédait suffisamment de gascon pour faire de l'esprit avec notre voisin sandalier Carrère. Au commissariat où il était agent, le basque était une langue de travail utilisée au quotidien. Aujourd'hui nos langues se meurent, on n'entend plus dans les rues leurs expressions imagées et pleines d'humour. Bayonne a perdu son âme. La disparition d'une langue est toujours une perte incalculable pour la richesse et la diversité de la culture humaine. D'autre part, le droit des Basques, comme celui de tout peuple, de parler et de vivre dans leur propre langue est un droit légitime et naturel. Demain à Bayonne on doit donner au basque les moyens de redevenir une langue de la vie de tous les jours, d'abord par l'école mais aussi par la radio, la télévision. Il doit avoir sa place dans l'administration et dans la vie publique. (1992)

## **Biografia laburra / Brève biographie**

Jakes Aurnague Izoco Baionan (cité Lahubiaguen) sortu zen 1934ko martxoaren 22an, aitama baigorriarenganik. Ttipitik, harreman hertsia ukan zituen Iparralde barnekaldearekin eta laborantza giroarekin.

1956an errient gisa hasi bazen ere (Izuran eta ondotik Baigorriin), laborantza irakaskuntzan jardun zuen ondoren (Baigorriin, Donibane-Garazin eta Donapaleun) eta azkenean kolegioan aritu zen (Donibane-Garazin), zailtasunak zituzten ikasleez edo lanbide-heziketara buruz joan nahi zutenez bereziki arduratuz.

Haurren bitartez euskararen galtze etengabe eta ikusgarriaren lekuko izateak gogoia inarrosi zion eta, 1980ko hamarkadaren hastapenean, Iparraldean egina izan zen lehenbiziko inkesta soziolinguistikoetatik bat burutu zuen (liburu honetan aurkeztua dena). Bestalde, sare publikoko irakasleen artean agiri/deialdi bat zabaldu zuen, eredu elebidun baten sortzea eskatzen zuena.

Hizkuntzaren eta kulturaren egoera larria ikusirik, eta erakundeen zein alderdi handien gelditasunak bultzatuta, politika alorrean ausartzea deliberatu zen 1985ean. Jarduera eta eztabaida publikoari etengabe jarraiki zitzaion, 1994ko otsailaren 27an Uharte-Garaziko bere etxean bat-batean zendu arte.

Kirolari eta izadiaren maitaleaz gain, musikazale eta irakurle argia zen Jakes Aurnague.

Jakes Aurnague Izoco naît le 22 mars 1934 à Bayonne (cité Lahubiague) de parents originaires de St-Etienne-de-Baïgorry. Il entretient, dès la plus tendre enfance, des liens privilégiés avec le Pays Basque intérieur et le monde rural.

Nommé instituteur en 1956 (Ostabat puis St-Etienne-de-Baïgorry), il exerce ensuite dans l'enseignement agricole (St-Etienne-de-Baïgorry, St-Jean-Pied-de-Port, St-Palais) puis rejoint le collège (St-Jean-Pied-de-Port) dans lequel il se consacre, en particulier, aux élèves en difficulté ainsi qu'à l'orientation vers l'enseignement professionnel et technique.

Emu par la régression spectaculaire et ininterrompue de la langue basque dont il est le témoin direct au contact des enfants, il réalise, au début des années 1980, l'une des premières enquêtes sociolinguistiques en Pays Basque Nord (présentée dans cet ouvrage) et est également à l'origine d'une pétition des enseignants du secteur public demandant la mise en place de filières bilingues.

Ayant mesuré la gravité de la situation linguistique et culturelle, et devant l'inaction des institutions et des grands partis, il entre en politique en 1985 et se consacre sans relâche à la chose publique jusqu'à son décès subit le 27 février 1994 à Uhart-Cize.

Sportif et amoureux de la nature, Jakes Aurnague était aussi un mélomane et un lecteur averti.

**Primaderako liliak: Jakes Aurnagueren heriotzearen kariaz, zenbait gogoe-  
ta / Les primevères : quelques réactions au décès de Jakes Aurnague**

Hiri agur hau azkena dutala ezin sinetsia zaitak. Berria jin delarik atzo Garazi aldetik hegoaren bidetik, otsaileko errakin usainek zoraturiko zerutik... lruzkia ilundu zakiuk eta bortu-elurak heuts-koloretu. Eta han hindagon oraino irriz, bainan begiak hetsirik, ezko-xirio bat pizturik eta kurutzeñoa ondoan Jakes! Etxe-ingurutan hiaurek landatu basa liliek othoitz-irritan hego-zeruari farfarikan. Bazterrak sukarrak hartzen dituen otsoen ilargi iritan, hi, biziaren maitari eta zerbitzari suharra, ixildu hiz. Bai, biziaren eta esperantxaren gizona hintzan! Hire jite guziaz, nahikare guziaz, izaite guziaz, indar guziez. Hitz laburrenez behar banu erran nor hintzan enetako, erran nirok: alaitasunaren profeta. Alegera, bizi eta izaite alegera –zer programa!– hori huen nahi munduarentzat heure arima guziaz. Denetako, eta lehenik jende xumeenentzat, bizia trixte deramatzenentzat: nigarra, goxoa baino maizago lagun duteentzat. Hortik zihoan hire engaiamendu politikoa bethidanik, eta hire abertzaletasuna. Kontrakoentzat –nahitez engaiatzen denak baititu– ez dauiat sekulan entzun hitz txarrik, gero dolutzen diren hitz heietarik! Gizon *guzien* errespetua erakutsi daukuk eta bethi irri alai hura ezpainetan. Har etzak Jakes, aipa ezin Bisitariak hiretako prestaturik zauzkan oihan eder eta mendihagaletako otso-xendra loratu usaintsuak. Eta berriz elgarrekin gure solas izarkideak jarraik arte, udaberrri liliak loratuko diren urte oroz, hire arimaren hatsa dagola gurekilan.

Eñaut Etxamendi  
(Enbata 1316, 1994-III-3)

Cet hiver, cette année, ce siècle ne pouvaient-ils s'achever sans que nous perdions à nouveau un compagnon de route ? Fallait-il, si peu de temps après la disparition de Claude, qu'à ton tour Jakes tu tires ta révérence ? Nous mesurons à peine tout le travail quotidien accompli, les liens tissés, les difficultés aplanées, les heures que nous volions à ta famille, ton infatigable disponibilité, ton caractère égal, ton attachement au pays, ton courage et ta fidélité, tant tu savais les rendre naturels. Dans le grand silence où tu nous a laissés résonne encore l'écho de tes pas au long de ces belles et longues journées de marche qu'ensemble nous faisons chaque année sur les sentiers d'Euskadi ou de Navarre, comme lors de ces pèlerinages à Roncevaux dans les petits matins frais de septembre, vers la collégiale découverte aux premières heures de lumière. Cette fois-ci tu t'en es allé seul rejoindre nos vieux amis, préparer la grande route au milieu des prairies, là où les primevères ne meurent jamais.

Michel Berger  
(Enbata 1316, 1994-III-3)

81eko iraila goiz batez, Zitadelan sartzea egin behar nuelarik: hor hintzan. Etxahunetaz solastatu gintian. Lagun goxo baten ezagutza egiten nian. 13 urte llaburrez, hire adiskidantza gozatu diat. Atzo arratsaldean oraino, auzoko txakurrak txanpaka hasi direnean, segunda erdi batez, hi hintzela uste ukan diat: kafeño bat edanen ginuela elgarrekin, hainbeste zor daian Bortairiko murrueen itzalian. Adiskidantza, anaitasuna Jakes! Hire kristalezko bihotzak, amodio indar paregabeko bat hedatzen zian. Ezkerrak, jende xumeen bizia aldatu nahi zuela: hor hintzan. Zailtasunak zituzten ikasleetaz arduratzeko: hor hintzan. Dantza ikastaldi alai bat: hor hintzan. Lan borroka bat: hor hintzan. Euskara, ikastola, Herrikoa, bozkak, presoak, iheslariak, hegoaldea... herriaren amodioz abertzale: hor hintzan. Begiak ideki dauzkidak. Hor hintzan umil eta langile: umil bes-teen errespetu haundi batekin; langile, beti geroari begira. O! hire engañamenduek, ardura, jendeen aintzinean agertarazi haute! Ez hintzen ez, alta, ohorez gose. Badakiat zer kostatzen zitzaukan. Lehen aldikotz ikusi hinduelarik, hola, publikoki agertzen, sindikatean gintian: gure taldeño baten ize-  
nean mintzatu hintzan Paueko biltzar nagusi batean, tripa koropilaturik... Norbait behar ginian: hor hintzan. Geroztik, aldi guziz, bozketan edo irrati emanaldietan behatzen hindudalarik, beti ber koropiloa senditzen nian, nihauri tri-pako minaren sortzaile. Ardura pentsatu diat, hire bihotz haundiaz, denak, sobera baliatzen ginela. Norbait behar ginian: hor hintzan. Igande goizean, primaderako liliak erein-eta, bihotzaren kristala krastatu zauk! Bizi guzian erein dituzkan hazien zain gituk: primaderatik landa udaren beroa goza dezaten. Indarra ukanen duguia? Hire beharra diagu, beti sustazaile, sekulan akulazaile. Hire beharra diagu: hor hiz gure bihotzean. Agur Jakes.

Erramun Etxemendi